

# LEZOKO IÑAUTERIARI BURUZKO GOGOETA

... *Lezoko Iñauteriaren sortzaile eta bultzatzaile ezkutua izan den Mikel Susperregiri.*

## 1.- Euskal Iñauteriaren hastapenak

Ez dago batere garbi nola sortu zen iñauteria, baina badirudi izadiaren urteberriarekin, indarberitzearekin loturik dagoela, udaberriaren etorrerarekin alegia. Eta hauxe izan da hemen gure artean, Euskal Herriko iñauteri mota guztiekin, eta baita Europako eta mundu zabaleko iñauteri guztiekin. Iñauteria paganoa dugu, arront jentila, eta bere sustraiak, bere zainik sakonenak garai bateko sinismenetan sartzen ditu. Paganismoa du iturri eta bere uretatik edaten du.

Euskal sinismenetan etengabeko kurpilean sinistu izan da, inoiz hasi eta inoiz bukatuko ez den bizi-kurpil bortitzean alegia. Baina hasierarik eta bukaerarik gabea bada ere, honek ez du esan nahi urteroko aldaketez ohartzen ez denik. Betidanik eta betirako



dagoen izate zabal hortan gauzak, egoerak, urtaroak, ilargiaren faseak,... aldatuz doaz, eta pertsona eta animalien antzera urtea jaio egiten da, haziz doa, bere gailurrera iristen da, eta makalduz eta ihartuz gero, hil egiten da, berriro beste ziklo berdintsu bati hasiera emateko. Eta hauxe da izadi osoarekin gertatzen dena, urtero udaberri aldean indarberritu egiten baita. Iñauteria orokorrean, eta euskal iñauteria zehazkiago, izadiaren indarberritze honekin, udaberriaren ekinozioarekin lotu beharra daukagu, eta bere sinbolismoak horixe gogorazten digu, izadiaren berpiztea.

## 2.- Iñauteriaren kristautzea

Kristau erlijioa gogotik saiatu izan zen aurreko erro pagano guztiak ezabatzen. Eta erri-to eta ohitura asko desagertu baziren ere, hori ez zen guztiekin gertatu, asko eta asko errotuegiak baitzeuden orduko gizartean.





Ezabaketa ezinezkoa zenean, sinbiosi batera iristen zen, ez zen aurrekoa guztiz baztertzen, esanahiaz aldatzen baizik. Eta horixe izan zen iñauteri berarekin gertatu zena. Ezin zuten suntsitu baina bai arautu eta beraien erritoetan barneratu. Herri katoliko askotan iñauteria Garizuma iritsi aurreko egunetan egiten da. Antzinako katolikoek ez zuten haragirik jaten Garizumak irauten zuen 40 egunetan, eta baraualdi hori iritsi baino lehen egiten ziren iñauteriak. Herrialde gehienetan iñauteria Quinquagesima-ko igandean (Bazko egunaren aurreko 50. Eguna) hasten da eta Hausterre egunean bukatzen. Hau dela eta herri askotan iñauteriko asteartean sardina erretzen dute haragikeriaren amaiera sinbolizatu nahian.

Nahitanahiezko kristautze honek aipaturiko nahasketa eta sinbiosia ekarriz gain, euskal iñauteria bitan banatu zuen. Alde batetik iñauteririk paganoena, herri ttikietan egiten dena, nekazal arlokoa deritzona, eta bestaldetik kaleko iñauteria, guztiz kristautua dagoe-na. Esan beharra dago interferentziak iñauteri guztietan ematen direla, baina batzuk besteak baino paganoagoak gelditu direla, edota alderantziz, batzuk besteak baino kristautuagoak bilakatu direla. Dena den, bi arlotako iñauterietan, nekazal arlokoan eta kalekoan alegia, bada osagai bat izugarri errepikatzen dena: bizitzeko grina, parranda, lizunkeria,... haragikeria hitz batez. Kristauek ipinitako Hausterre egunak garbitu egiten dituzte aurreko egun zoroetan egindako hoben guztiak.

### 3.- Lezoko iñauteriaren sorrera

Francoren diktadura luzeak gauza askoren isiltzea ekarri zuen, baita beste askoren akabua ere. Euskal iñauteria gorde izan zen, orden berriak ez baitzuen haragikeriaren inguruko umorea ikusi nahi. Euskal iñauteria Zuberoako maskarada eta pastoraletara murriztu zen, Hegoaldeko herri guztietakoak galerazi baitziren, herri guztietakoak Tolosakoak izan ezik, han iñauteria udaberriaren inguruko jai batez kamuflatzea lortu baitzuten. Eta honela Tolosako iñauteri urbanoa Hegoaldeko iñauteri bakarra bilakatu zitzaigun. Diktadorearen heriotzarekin gauzak berpiztu nahi izan ziren, Lantzeko ereduari jarraituz. Baina zoritxarrez, herri oroitmena oso ahula zegoen, eta Tolosako iñauteri urbanoaren eragina haundiegia zen gure artean. Berehalaxe berpiztu zen Donostiako iñauteri hibridoa, Rio de Janeirokoarekin antza hartu nahian. Eta segituan gertatu zen gauza bera



Donostialdeko herri eta auzo askotan: Pasaian, Oreretan, Hondarribian, Irunen,... eta herri guzti hauean garai batekoa berpiztu beharrean, betiko topikoei ekin zioten: mozo-roen desfile kosmopolita, sardinaren erretzea, eta abar. Lantzekoa polita baina exotikoa iruditzen zitzaigun, eta ez zitzaigun burutik pasatzen Euskal Herriko bazter askotan hola-koak izan zirenik.

Honela ihaute-sukar honek jota, Lezon ere saiatu izan ziren iñauteriak egiten. 1984 urtea zen eta asmoa Ekaitz gazte elkartearen sortu zen, hasieran barne aktibitate gisa, eta gero kanpora eramateko beharra ikusi zuten. Deialdi bat egin zuten, eta Allerru, Ixkulin, Takili Takulu fanfarrea, Txerrimuño eta Guraso Elkartearekin batera, lehenengo desfilea antolatu zuten. Katekesiak ere haurrak animatu zituen desfilean parte har zezaten. Lehenengo desfile hau 1985ean izan zen eta baita iñauteriari bukaera emateko leku guztietan lege bihurtzen ari zen Sardinaren hiletan ere.

Baina 1988an proiektu berriak aztertu ziren herriko elkarte eta herri erakunde guztiak biltzen zituen Kultur Batzordean, eta autoktonoaren itzulera bilatu zen. Baina ez zen lortu ez baitzen deus, ez herri-tarren oroitmenean, eta ez idatzian. Hau ikusirik, zahar kutsuko iñauteri berri baten egituratzeari ekin zitzaion, Lezoko iñauteriari falta zitzaiona, berezko nortasuna aurkitzea zela, aipatzen baitzen behin eta berriro. Ez genuen iñauteri mimetikoa, hibridoa, inportatua,... nahi eta horrela, Lezok historian izan duen nekazal zama handia kontuan harturik, nekazal arloko iñauteri baten egiteari ekin genion, iñauteri urbanoa baztertuz.



#### 4.- Denon arteko lanaren fruitua

Kultur Batzordean bilduta, herriko elkarte eta herri erakundeek elkar lanari ekin zioten, sei edo zazpi bilera eginez. Han biltzen ziren aipaturiko elkarten ordezkariak, beraien kolektiboen iritziak emanez. Oso zerrenda luzea izan zen, baina aipatzekotan aipa ditza-gun: Allerru, Ixkulin, Tiñelu, Dantza Taldea, Ekaitz, Txistularien Taldea, Musika Akademia, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Lezoko Zinekluba, Txerrimuño, Lezoko Askagintza, Katekesia, Eskoletako Gurasoen Elkarte, ... eta oroitzen ez dudana abar luzea (barka diezaidaten ahaztu ditudanak). Ni, kultur zinegotzia nintzenez, talde honen koordinatzailea, koordinatzaile soila, elkarte eta herri erakundeetako ordezkariak eraman baitzuten euren gainean lanaren zama.



Baina denborak agintzen zuen, eta ezin izan zen deus berririk egin. Gauza anitz aipatu ziren, izenak eta ideiak eman ziren, baina hurrengo urterako gelditu ziren. Baina ustekabean eta ordurako ohizkoak ziren ekitaldien artean (mozorrotuen desfilea, Sardinaren hileta...) bi ekitaldi berri sortu ziren, bata Txerrimuñok antolatutako Tarratada izeneko kontzertu bufoa, eta Trapujale izeneko asmatuberria zuten pertsonaiaren inguruko konpartsa bestea, azken hau Ekaitzen eskutik eta irudimenetik etorri zitzaigularik. Haziak ereinda zeuden, eta hurrengo urtean, 1989ko iñauterian hain zuzen, fruitua eman zuten.

## 5.- Lezoko iñauteria zertan den

Hurrengo urtean, Ekaitzen sortutako TRAPUJALE izeneko pertsonaiaren inguruko iñauteria zen. Trapujale ezizena erabili izan dute Lezo inguruko herritarrek lezoarrak izendatzeko, trapujaleak beraz, lezoarrak dira baina euren bizilagunen begietan. Ekaitzekoen irudimenak Trapujale erdi gizakia, erdi behorra eta erdi betizua ikusi zuen eta honela segitu da gaurko egunetaraino. Orduz gerotzik bera izan da lezoar iñauteriaren ardatza, gure iñauteri "zahar" berriaren ekintza eta beste pertsonaia guztiek beraren inguruan baitaukate izateko arrazoirik funtsezkoena.



Trapujalek lezoarren izpiritua sinbolizatzen du, ez baitugu ahaztu behar azken batean lezoar guztiak trapujaleak direla. Jaizkibel mendiko leizezulo batean bizi da eta urtean behin, Lezora jaisten da bertako iñauteriei hasiera emateko. Lezoarrak Martizkone baserri inguruan biltzen dira, ostegunzurian, iñauteriaren lehenengo egunean hain zuzen, eta

txistu, soinu, zuzi eta altxaferuen artean herriko udaletxeraino laguntzen dute, ondoren Trapujalek bertako balkoitik iñauteriari hasiera ematen dion urteroko pregoia irakurtzen du plazan bilduta dagoen lezoar herriaren aurrean.

Baina Trapujale bizi den leizezulo ondoan dagoen beste batean Marinazkane izeneko sorgin gaiztoa bizi da. Sorgin honek, betidanik abisatu omen ditu Jaizkibelgo artzaiak ekaitz eta enbaten hurbileraz, eta ordain gisa, bertako artzaiek urtero bost ardi eramaten dizkiote bere zulara. Sorginak baditu zenbait zerbitzari, ziriko deritzatenak eta euren bizkarrak zikiro larruz jazten dituztenak. Hortik eta jendea zirikatzeke gero erakutsiko duten trebeziatik omen datorkie izena. Baina ziriko bakoitzak badu bere izena: Munttar da ziriko nagusia, eta Ixku (Ixkulin), Aller (Allerru), Sumi (Sumillondo), Tiñel (Tiñelu), Sats (Sahatsa) eta Let (Lete) beste seiak. (Irakurleak ikusiko duen bezala, zirikoen izenek Jaizkibelgo toponimiaren berri ematen digute).



Behin ez omen zuen ekaitzerik egin, eta sorginak ezin izan zituen artzaiak ekaitzen etorreraz ohartu. Lanik egin behar izan ez zuenez, artzaiak ez zioten urteroko zerga ordaindu, eta Marinazkane izugarri haserretu zen artzaien jarrera ikusirik. Bere zirikoen aurrean eta arront minduta, mendekua iragarri zuen. Garai hartan Lezoko inauteria hastekotan zegoen, eta zegoenezko Trapujale, bere zuloa



utzirik, Martizkoneko bidetik barrena Lezo aldera zihoan. Honetaz baliatuz, sorginak bere zirikuei bost ardi lapurtzeko eta akatzeko agindua eman zien. Honelaxe egin zuten, Jaizkibelgo artzaiak Lezoko inauterira jeitsita zeudela aprobetxatuz. Ardiak lapurtu, larrutu, erre eta jan egin zituzten. Larunbat gorrian, zirikuek larru berriekin apaindurik, Lezon egiten ari zen Trapujalaren Kalejiran hartu zuten parte. Artzaiak euren ikurrak edo markak zirikuen larruetan ikusiz, euren ardienak zirela konturatu ziren, baina sorginaren beldur, ez zuten deus ere esan.

Zirikuek berriz, sorginak honela agindurik, Trapujale lapurra izan zela zabaldu egin zuten Lezoko lau haizetara, lezoarren artean mesfidantza sortaraziz. Jendeak ez zuen zirikuen hitzetan gehiegi sinistu, baina epaia antolatzeko beharrea ikusi ziren. Epaiketaren eguna astearte beltza izan zen. Epaiketa honetan lekuko bakarrak zirikuak izan zirenez, epaileak erruduntzat jo behar izan zuen gure Trapujale. Lepotan kate bat jarrita, herrian zehar eramane zuten Herio Bidaian deitutakoan, eta ondoren berriz plazara ekarririk, Subanbada izeneko ekitaldiari hasiera emanaz, igitai zorrotz batez epoa moztu zioten eta udaletxeko balkoitik bere burua erakutsi ondoren surtara bota zen lezoarren pena eta txistuaren artean. Bapatean ahots bat aditu zen honela zioena:

“Trapujale maiteok, ez gehiago negarrik egin. Burua moztu didate baina ni, oraindik bizi naiz. Ez ahaztu trapujaleen izpiritua naizela, inork inoiz akabatuko ez duen izpiritua. Alaitu beraz zuen aurpegiak, abestu eta dantzatu Inauteriaren azkeneko egun honetan, ni datorren urtean berriro itzuliko bainaiz. Hor plazan duzuen Trapujalaren gorputzetik txorizoa eta ardoa aterako dira. Jan eta edan ezazue nahi haina, badago eta! Agur trapujleok, datorren urterarte! Ondo izan lagunak!”

Horixe eginda, lezoarrek Trapujalaren sabela irekiz, txorizoa eta ardoa atera zuten, modu honetan, otordu baten inguruan, Trapujalek emandako berri ona ospatzeko, eta modu honetan ere, urte hortako inauteria bukatzeko zorian egon arren, hurrengo urteko inauteriaren iragarpena agertarazteko. Urte batean bukatzen dena, hurrengoan errepikatuko baita.





## 6.- Lezoko iñauteriaren beste ezaugarriak

Lezoko iñauteria iñauteriko ostegunean hasten da, hurrengo hasteko Hausterre bezperako asteartean bukatzeko. Beste herrietan gertatzen den bezala, Lezon ere iñauteriko egunek beren izen bereziak dituzte: ostegunzuri, ostiralori, larunbatgorri, igandubel, astelehenarre eta asteartebeltz, euren kolorearen bitartez lezoar iñauteriaren intentsitatea erakusten digutelarik. Zuritik hasiz eta horitik igaroz, larunbatean gorrira iristen da lezoar iñauteriaren goritasuna agertaraziz, ero ubela, arrea eta beltzaren bitartez, iñauteriaren maldabehera edo heriotza adierazteko.

Udaletxeko balkoian egunero aldatzen dira bertan ipinitako bi banderak, egunari dagokion kolorea azaldu araziz. Lezoarrek euren jazkeretan, zintetan, lepoko zapietan, eta baita taberna eta etxeetako leihoetan ere, egunari dagokion kolorea erakusten dute. Lezoko iñauteriak baditu bere soinu bereziak, bertako semea den Xanti Espina Anduezak eginak: "Trapujaleren kalejira" bata eta "Trapujaleren Hileta Soinua" bestea. Oso antzekoak dira, baina lehenengoa guztiz alaia den bitartean, bigarrena arras goibela dugu. Maria Pilar Intxauspek ipini zion letra kalejirari:

*"Ostegunzuri trapuz estaliz,  
Ostiralori dantza ta kanta,  
Larunbatgorri egun sututsu,  
Igandubel denok goibel,  
ta astelehenarre...  
salaketa, salaketa, salaketa,  
beltza, salaketa, salaketa, salaketa  
zuri, hori, gorri, ubel, arre, beltza"*



Aipatzekoak dira ere, ostegunzuriar, Trapujaleren jeitsieran udaletxe-ko megafonian ipintzen den Trapujaleren Ahotsa izeneko grabazioa burrunbatsua, eta larunbatgorrian Trapujaleren kalejiran Marinazkane sorginak eta zirikuak dantzatzen dituzten dantza bereziak. Eguneko ekitaldietan ematen dira egunari dagokion koloreko bandera ugari, koloretasun haundia emanez.

Aipatu beharra daukagu, Trapujale eta Lezoko inauteriari buruz, Lezoko Udalak kaleratutako komikia, bera bihurtu baita gure inauteriaren oinarri teorikorik onena. Mikel Susperregi izan zen gidoigilea eta Lander Zurutuzak egin zituen marrazkiak. Oso lan bikaina Susperregi eta Zurutuzaren artean egin zutena.



## 7.- Gogoeta gisa

Urteak pasatzen ari dira, bata bestearen atzetik eta harrapaladan. Eta beraiekin batera lezoar inauteriak. Gaztea zena heldua ari zaigu egiten, eta ardoarekin gertatzen den bezala, ontzen ari zaigu. Ez zuen sustrairik, baina gaur ondotxo finkatuta daude lezoarren artean. Tradiziorik gabea zen, baina igarotako urteek eman diote ondo merezitako tradizioa. Urtero azaltzen dira zenbait irudi telebistako albistegietan, egunkari ezberdinen kroniketan azaldu dira bere argazkiak, eta zenbait artikulutxo. Irratiek eman dute uhainen bitartez, Lezoko inauteri bereziaren berri. Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo ospetsuek eraman zituzten bai Trapujale eta bai zirikuak Euskal Telebistan zuten programara, eta han dantzatu egin zuten.

Aipamen berezia merezi du bestaldez, Italiako Alessandria izeneko hiritik esku anonimo batek igorritako antzezlanana, non Trapujale eta bere inguruko beste pertsonaiez ikuitzeaz gain, Lezoko hizkera ipintzen duen bertakoen ahotsetan. Azken LEZO aldizkarian kalera-tu egin zen. Eta hor daukagu zain, ea lezoar talde batek noiz antzezten duen.

Lezoko inauterietaz mintzatzerakoan, jendea hasita dago "TRAPUJALEAK" deitzen Sanjoanak, Santakruzak,... esaten duten bezala, eta laster deituko zaio "Lantz gipuzkoarra", dagoeneko ez bazaio deitzen. Behin eta berriro askoren ahotan errepikatzen denez, herri guztiek ba omen daukate merezi dutena, eta ene ustez Lezok badu ondo merezitako inauteria.

*Joseba Aurkenerena Barandiaran*